



unesco etxea **txostena**

2	Aurkibidea
3	Agurra
4	Nor gara?
8	2008ko ekintzak
11	Argitalpenak
12	2008ko ekitaldi garrantzitsuenak
16	Datu ekonomikoak



centro unesco euskal herria  
centre unesco pays basque  
unesco centre basque country

Erredakzio eta grafikoak:  
UNESCO Etxeko lan-taldea  
Diseinua eta maketazioa:  
SRB, S.L.  
Edizioa: 2009ko ekaina  
Editatzen du: UNESCO Etxeak

UNESCO Etxea  
Urkixo Zumardia 60, nag. esk.  
48011 Bilbao  
Tfna.: 94 427 64 32  
Faxa: 94 427 25 48  
info@unescoeh.org  
www.unescoeh.org

Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.

Bere erabilerarekin argitalpen honetan honakoa aurreztu da: 3,3 zuhaitz-mozketa, 1.660 litro ur-erabilpena, 1.422 Kilobatio/orduko argi-kontsumoa eta 347 CO<sub>2</sub> kilo-izurtzea.



Hala ere, liburu honen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak derrigorrez sortzen duten berotegi efektuko gasen isurpenak (435 CO<sub>2</sub> kilo, zehazki) aldaketa klimatikoaren aurkako Ekopass elkartearen bitartez konpentsatuko dira, Green Belt Movement erakundeak baso-berritze, garapen eta generoaren alorretan Kenyan garatzen dituen proiektuen bidez.



Green Belt Movement erakundeak Wangari Maathai Nobel Sariduna du buru. Wangari garapen iraunkorra, demokrazia eta bakearen alde egindako lanagatik ezaguna da mundu osoan.

Green Belt (Gerriko berdea) Mugimenduak 20 milioi zuhaitz baino gehiago landatu du Afrikako baso-soiltze eta basamortutzea ekiditeko, aldi berean aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan lagunduz.



## RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA • MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIA



Ruper Ormaza eta Mikel Mancisidor Stéphane Hessel-ekin.

Zaila da urte osoko lanaren berri orrialde gutxi batzuetan ematea, eta bidegabekoa ere izan daiteke. Bidegabekoa diogu, zenbait jarduera aipatu gabe utzi behar direlako, pertsona askoren ahalegina guztiz aintzatestea ezinezkoa delako, edo zenbait itunen garrantzia oso-osorik adierazi ezin delako.

Memoria honetan, 2008ko gertaera aipagarrienak biltzen saiatu gara. 2008an, aldaketa handiak gertatu dira talde profesionalean eta Kontseiluan. Urte ona izan da, gure helburu estrategikoak betetzeko bidean aurrera egin dugu, eta gure MISIOAn eta IKUSPEGIAN aurreikusitakoari gehixeago hurbildu gatzazkio.

Aurten, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatu da, eta UNESCO Etxeak nazioarteko ospakizun horretan parte hartu du. Memorian azaldu dira gure erakundeak egin dituen askotariko jarduerak. Guretzat, esanahi berezia izan du Stéphane Hessel Giza Eskubideen Kultura sustatzeko UNESCO/BILBAO saria emateko ekitaldiak. XX. mende osoan giza eskubideetan ekintzaille eta diplomazialari handi izan den Hessel ezagutzeko eta mundu-mailan egin zaion aintzatespenean laguntzeko aukera izan dugu. Ezagutzea merezi duen hainbat pertsona badago munduan; esate baterako, gizateriarekin adiskidetu gaitzen lortzen dutelako erreferente direnak. Haietako bat da, hain zuzen, Hessel judu germaniar frantses unibertsala 92 urte ditu, eta giza eskubideak defendatzen aktiboki parte hartzen du oraindik, itxaropena eta duintasuna ereinez.

Urte guztian, diskrezioz eta probetxuz lan egin dugu Giza Eskubideetan Hezteko Euskal Planean, bai eta plan hori gizartean eta hezkuntzan babesten ere. Ezin izan da lortu hitzarmen handirik parlamentuan, ez eta aparteko akordio sozialik ere. Baina, gure ustez, positiboki lagundu dugu oinarri on bat eraikitzen. Etorkizunean, oinarri hori osatzen eta hobetzen jarraitu beharko da.

Memorian azaldu bezala, uraren arloan erreferentzia orokor bihurtu gara; kultura-eskubideen alorrean

erakunde garrantzitsu bilakatzen ari gara, eta lan sakona egiten dugu bakearen kulturaren, hizkuntzetan eta immigrazioan, prestakuntzan eta informazioan, hezkuntzan eta dokumentazioan.

Elkartearen bamean, nabarmentzekoa da 13 bazkide harpidetu direla. Horri esker, gobernu kanpoko elkarte gisa, gure gizarte-oinarria eta gure hiritar- eta gizarte-izaera sendotzen jarraitzen dugu. Zuzendaritza Kontseiluaren zati bat berriro dugu. Hain zuzen, bi kontseilari berri sartu dira: Jon Emaldi eta Nieves Fernández. Horrek berrikuntza eta aberastasuna ekarri ditu. Aipatzekoa da, halaber, Paul Ortega jaunak kontseilari kargua utzi duela. Paul Ortega UNESCO Etxeari lotuta egon da 1992. urteaz geroztik, zuzendari gisa hasieran, eta kontseilari gero. Eskerrak eman nahi dizkiogu Pauli.

Zuzendari Kontseiluan, UNESCO Etxeko profesionalen harremanak eta lan-baldintzak arautzen dituen 'Lan-harremanen esparrua' dokumentua onartu dugu. Gure ustez, lana egoki arauturik izatea garrantzitsua da, barne-hitzarmenak lortzeko, profesionalak aintzatesteko, eta langileek lan-sari duinak izateko. Hortaz, lana modu dinamikoan araututa egotea gakoa da gure elkarteak bere xedea bete dezan, eta erakunde gisa hazten eta hobetzen jarrai dezan.

2009. urtea zaila izango da. Krisi ekonomikoak guztiongan du eragina. Eraginkorrako eta produktiboago izatera behartzen gaitu, bai eta berrikuntzan ahalegin bikoitza egitera ere.

Aurten, UNESCOko agintari gorena –alegia, zuzendari nagusia– ere aldatuko dugu. Espero dugu aldaketak lagunduko duela erakunde demokratikoago bihurtzen eta berritzen, eta parte hartzeko aukera gehiago emango diela gizarte zibileko eragileei; besteak beste, UNESCO Etxeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuan ere aldaketa izan da aurten. Erreferente berriak ezagutzeko aukera izango dugu, bai eta mundu bidezkoagoan herrialde hobe eraikitzeko dugun helburuan bestelako sentiberatasunak sartzeko ere.

Ahalegina egingo dugu, gurekin batera, gure gizarteak eta gure herrialdeak maila gorenean parte har dezaten garai honetako erronka orokor garrantzitsuenetako zenbaitetan. Eta lortzen ari gara, bazkide eta boluntario konprometituei eta aparteko profesionaleri esker.



2008an, UNESCO Etxeko Zuzendaritza Batzordea utzi dute Xabier Monasteriok eta Paul Ortegak. Biei gure esker ona helarazi nahi diegu beren lan eta ekimen handiagatik.


Xabier Batzordeko kide izan da 2002tik 2008ra, eta idazkari lanetan aritu da 2002tik 2006ra.

Paul UNESCO Etxeko zuzendaria izan da erakundea 1991. urtean sortu zenetik 2004 arte; urte hartan, Zuzendaritza Batzordeko kide izatera igaro zen. Memoria honetan nabarmenduta jaso nahi dugu Paul giltzarria izan dela erakunde honi bihotz-arima eskainitako 17 urteotan. Erakundearen sustatzaile nabarmena izan da aurreneko lerrotik, eta ezin konta ahala ekimen garrantzitsuren aita. Ekimen horiei esker dago UNESCO Etxea gaur egun dagoen lekuan. Memoria honetan biltzen diren lorpen asko pentsaezinak lirateke Paulek urte askoan mugarik gabe eta borondate izugarri eginahalean jardun izan ez balu; bete-betean asmatuz, gainera. Eskerrik asko, Paul!

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.


2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 130 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA 2009



Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin kolaborazioan:

14 Bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan  
1 Kontsultore pariseko UNESCOn, 1 Kontsultore ONU-Agua bulegoan, Zaragozan, 2 Kontsultore OHCHRan, Genevan.



**MISIOA,  
IKUSPEGIA ETA  
BALIOAK**

Beste proiektu batzuei ekiteko UNESCO Etxea utzi duten gure lagun **Belen Uranga, Helena Orella, Almudena Rodríguez, Elisa Mandiola eta Nerea Basterekeari**, bihotz bihotzez arrakasta opa diegu maila pertsonalean zein profesionalen.

**MISIOA**

UNESCO Etxea nazioarteko bokazioa duen Gobernuz Kanpoko Euskal Erakundea da. Bake-kultura, giza garapen iraunkorra eta tokian tokiko eta mundu osoko giza eskubideak egi bihur daitezen egiten du lan. Horretarako,

- Nazioarteko prozesu eta ekimenetan aktiboki hartzen du parte;
- Euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen arteko erlazio eraldatzailea sustatzen du (batez ere UNESCO eta NBE); eta
- Iritzi eta irizpide propioak ematen ditu, ikerkuntza, eragina, prestakuntza, berrikuntza eta dibulgazioaren bitartez.

**IKUSPEGIA**

UNESCO Etxea erakunde sendoa, ospetsua eta independentea da, errekonozimendua du, eta kalitate-irizpidez jarduten du. Erakundearen bazkide eta lagunen taldea zabala eta plurala da. UNESCO Etxearen zuzendaritza-batzordea aktiboa da, eta erakundearen lantalde profesionala, berriz, goi-mailakoa, kohesioduna eta sendotua. Misioa betetzeko orduan gizartean lortu duen dimentsioa, garrantzia, proiektzioa eta baliagarritasuna ikusita, UNESCO Etxea erreferentzia dugu EAEn. UNESCO Etxeak nazioarteko maila gorenean egiten du lan bere espezializazio esparruetan eta modu eraginkorrean hartzen du parte munduan erreferentzia eta eragile diren sare eta jokalekuetan.

**BALIOAK**

Honela dio UNESCOren Konstituzioaren hitzaurreak: «gerrak gizakien buruan sortzen direnez, gizakien buruan eraiki behar dira bakerako oinarriak». UNESCO Etxea bake justua eta duina eraikitzearen aldekoa da, pertsona oinarri hartuta, hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta informazioaren bitartez. Horretarako, oinarriko askatasunak eta aniztasuna errespetatzea defendatzen du, arraza, sexua, sexu-joera, hizkuntza edo erlijioagatiko bereizketarik egin gabe.

UNESCO Etxeak bere egiten ditu Nazio Batuen berariazko balioak: giza eskubideak, demokrazia, tolerantzia, justizia eta askatasuna errespetatzea eta sustatzea. UNESCO Etxearentzako balio horiek behar-beharrezkoak dira gure herrialdearen errealitatean, eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

Eguneroko lanean UNESCO Etxeak bere egiten ditu balio hauek: berrikuntza, sormena, kalitatea, efikazia eta eraginkortasuna, pertsonaren garapen integrala (bere lantaldeko jendearena, lehendabizi, jakina), herrialdearen etorkizunarekiko ardura eta inguruko eta mundu zabaleko gizartea zerbitzatzeko borondatea.

**SAREAK ETA  
ALIANZAK****UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...**

«Nazio Batuetako organismoek ikasi dute lankidetzan jarduten Erakundearen helburuak babesten dituzten eragile ez estatalekin. Aliantzak bereziki garrantzitsuak dira Nazio Batuen biltzar eta bilera garrantzitsuetan hartutako konpromisoak aplikatze aldera. Eta, orobat, Milurtekoko Garapen Helburuak lortze aldera bideratutako ekimenei begira ere inportanteak dira aliantzak. Gainera, aldaketa instituzionala errazten dute eta Erakundeari laguntzen diote eraginkortasun handiagoa nola hartu ikasten».

Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saila. 2008

UNESCO Etxeak Euskal Herriaren eta nazioarteko erakunde nagusien arteko lotura sendoa ezartzen du, horretarako bi tresna garrantzitsu erabiliz: UNESCOrekiko Harreman Ofizialen

Estatua, eta Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatua (ECOSOC). Horrez gain, UNESCO Etxea Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kide da.



Bestetik, haren Dokumentazio Zentroa UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kide da.

Hezkuntza, ingurumena, kultura eta giza eskubideekin lotutako UNESCOren hainbat programatan hartzen dugu parte. Modu estuan egiten dugu lan UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordearekin (Comisión Española de Cooperación con la UNESCO), Kanpo Harremanetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren menpeko erakundea.

Milurteko Garapen Helburuak bete daitezzen, Nazio Batuen Milurteko Kanpainarekin kolaboratzen dugu. Aldi berean, Nazio Batuen Europako Eskualde Bulegoarekin (UNRIC) lankidetzan ari gara; eta Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoarekin (OHCHR), Garapenerako Nazio Batuen Programarekin (PNUD) eta 'Ura, bizi-iturri' 2005-2015 Ekimenerako Nazioarteko Hamarkadarekin lan-harreman egonkorra ditugu.

### ...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

UNESCO Etxea Espainiar Estatuko UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Konfederazioaren baitan dago eta UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioaren (FMACU) kide da.

Espainiako Nazio Batuetarako Elkartearekin (ANUE) dugun hitzarmenari esker, UNESCO Etxea Nazio Batuetako Elkarteen Munduko Federazioaren (WFUNA) erreferentea da EAEn.

CONGOko kide gara (Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia), eta honen urteroko batzarretan parte hartzen dugu. UBUNTU - Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroaren erreferentea gara Euskadin. Nazioarteko Erakundeak Sakon Berritzea Mundu mailako Kanpainaren Euskal Komitearen zuzendariak gara.

EUWI - Ura eta Garapenaren gaian Europako Batasuneko ekimenaren, CONGDE-Espainiako GKEen Koordinakundearen uraren taldearen, Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokiaren, Uraren aldeko Aliantzaaren eta bakerako giza eskubidearen kanpaina sustatzen duten 120 erakunde-sarearen partaide gara. COHRE-ko Ura izateko Eskubidearen Programarekin elkarlanean ari gara.

UNESCO Etxeak hainbat erakunderekin sinatu ditu elkarlanerako hitzarmenak: UNESCOCat (Centre UNESCO de Catalunya), LINGUAPAX Institutua, Munduko Landagunea, Pax Romana - MIIC, Cultura de Paz Fundazioa eta Giza

## ONU-UNESCO 2008KO OSPAKIZUNETARAKO UNESCO ETXeko EKARPENa (INFORMAZIO GEHIAGO 12TIK 15ERA ORRIALDEETAN)



Argitalpenaren aurkezpena: 'Amerikako hizkuntza aniztasuna Mexikotik Hego Konoraino'.

Hizkuntzak eta Immigrazioari buruzko II. Biltzarren antolaketa eta gai honi buruz egindako ikerketaren emaitzen aurkezpena.

Mintegi-solasaldia: 'Hizkuntza Aniztasuna eta Kultura Aniztasunaren Kudeaketa immigrazio eta nazio gutxiengoan inguruneetan'.

'Hizkuntza gubxituen erronkak globalizazio aroan' deituriko biltzarren batzorde zientifikoaren osaketa.

'El futuro de las lenguas: diversidad frente a uniformidad' liburuaren koordinazioa eta aurkezpena.



Jardunaldia: 2008ko Uraren munduko eguna.

Jardunaldia: 'Ura eta lankidetzeta'.

Ikastaroa: Ura izateko giza eskubidea.

'El Derecho Humano al agua. Situación actual y retos de futuro'. liburuaren koordinazioa eta ingelezko eta gaztelaniazko bertsioaren aurkezpena.

'Uraren ametsa' DVDren edizioa eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioaren aurkezpena.

### Zaragozako Expo 2008an:

Aurkezpena: EAEko uraren kudeaketari buruzko ikerketa. 'Ura, etengabe aldatzen ari den munduan'. Munduko Ur Baliabideen Garapenari buruzko Txostenaren III. edizioari eginko ekarpena.

Mahai-ingurua: 'Ur eta Saneamendu gaietan Milurteko Garapen Helburuak finantzatzeko eta babesteko alternatiba berritzaileak'.

NBEaren eguna Expon: 'Ura izateko Giza Eskubidea. Gaur egungo egoera eta etorkizunerako erronkak' hitzaldiaren aurkezpena.

Mahai-ingurua: 'Ura izateko Giza Eskubidea'.



Jardunaldiak: 'Giza Eskubideen nazioarteko sustapena eta babesa'.

Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 60. urtemugaren ospakizuna.

'ABC Giza Eskubideen irakaskuntza' liburuaren edizioa eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioaren aurkezpena.

'Europako Kontseilua eta giza eskubideen babesa' dokumentuaren eta 'Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala' testuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioaren argitaratzea.

### Giza Eskubideen Kultura sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria:

UNESCOren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea.

Epaimahaiaren bilera eta Sariaren epaitza.

Mahai-ingurua: 'Giza duintasuna eta guztientzako justizia. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala 60 urteren buruan: lorpenak eta erronkak'.

Saria emateko zeremonia. Parisen.

Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Elkarte (AEDIDH).

**...Euskal Herriatik maila lokalean eta globalean**

UNESCO Etxea UNESCO-EHuko Katedrak sortzearen aldeko sustatzaile aktiboa izan da, eta hala, Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Katedra eta Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UNESCO Katedrak ezarri dira Euskal Herriko Unibertsitatean.

Euskadiko GKEen Koordinakundearen Gobernu-batzordearen kide gara eta Mobilizazio eta Kanpainen Taldean parte hartzen dugu.

Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroaren sortzaile taldekoak gara, baita Zuzendaritza-Batzordearen kideak ere.

Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin lan hitzarmen bat dugu. Oso harreman estua dugu Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuarekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Ikasketen Katedrarekin. Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldearekin hainbat proiektutan lan egiten dugu.

EAPN Euskadi, Pobrezia eta Giza Bazterketaren Aurkako Europar Sareko kideak gara, kulturartekotasun lan taldean parte hartuz.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuarekin lanean jarraitzen dugu; lankide eta kolaboratzaile gara hainbat ekimenetan.

Emakunde-Emakumearen Euskal erakundea Emakumearen Estatusari buruzko Nazio Batuen Batzordean parte hartzea ahalbidetu dugu. Bestalde, Eudel –Euskadiko udalen elkartearekin elkarlanean ari izan gara.


Daniel Innerarityk, UNESCO Etxeko Ohorezko Bazkideak, 2008ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria jaso zuen. UNESCO Etxeak bere kandidatura aurkeztu zuen.

Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dugu, 'Berrikuntzaren Euskal Sistema Nazioartekotzea' Kontseiluaren baitan.

**...isurpenak konpentsatzen dituen**

Ekitaldi nagusien ospakizunetan eta liburuen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak sortutako berotegi efektuko gasen isurpenak, aldaketa klimatikoaren aurkako Ekopass elkartearen bitartez konpentsatuko dira, Green Belt Movement erakundeak baso-berritze, garapen eta generoaren alorretan Kenyan garatzen dituen proiektuen bidez.

**UNESCO ETXeko 14 BEKADUN ETA 4 KONTSULTORE MUNDUAN**





## Lan-arloak

### HIZKUNTZAK ETA KULTURAK



Mintegi-solasaldia: 'Hizkuntza Aniztasuna eta Kultura Aniztasunaren Kudeaketa immigrazio eta nazio gutxiengoaren inguruneetan'.  
Ekainaren 13a. Euskalduna jauregia.

Aurten, Hizkuntzen Nazioarteko Urtea ospatzen lagundu dugu, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin elkarlanean.

Ikuspegirekin (Immigrazioaren Euskal Behatokia) batera ikerketa zabala egin dugu Hizkuntzak eta Immigrazioa gaiari buruz. Maiatzean, Bilbon, Hizkuntzak eta Immigrazioari buruzko II Biltzarrean aurkeztu genituen ikerketa horren emaitzak eta ondorioak. Ikerketa hori egiteko bertako eta nazioarteko aditu entzutetsuekin egin genuen lan. Migrazio prozesuak udako ikastaroan ere aurkeztu ziren ikerketa horren emaitzak.

Ekainean, berriz, mintegi-solasaldia antolatu genuen Will Kymlicka ospe handiko adituarekin. Gaia, hauxe: 'Hizkuntza Aniztasuna eta Kultura Aniztasunaren Kudeaketa immigrazio eta nazio gutxiengoaren inguruneetan'. Euskal Herriko eragile publiko eta pribatu ugari bildu zen mintegira.

Amarauna hizkuntzen taldeak Batzorde Zientifiko bat osatu zuen Eremu urriko hizkuntzen erronkak globalizazioaren

aroan Nazioarteko Biltzarrean baitan. Biltzar hori Bilbon izan zen, urrian, EUDEL, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek antolatuta.

'El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad' (Hizkuntzen etorkizuna. Uniformetasuna beharrean aniztasuna) liburua koordinatu dugu. Argitalpen horretan biltzen dira gure taldeko kideen artikulatuak eta bertako eta nazioarteko beste aditu batzuenak. Cervantes Institutuak 'Asteko Liburu' izendatu zuen lan hori.

Aurten, gainera, gure eragina areagotu dugu nazioartean; hala, kultura-eskubideen Friburgoko behatokiaren izen handiko sarean sartu gara oso modu aktiboan, eta, horrez gain, Nazio Batuen Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeko 15. Artikuluaren (Kultura Eskubideei buruzkoa) Behaketa Orokorren kontatzaileak egindako lanetan lagundu dugu.

Informazio gehiago: [www.amarauna-languages.com](http://www.amarauna-languages.com) eta [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

### GIZA ESKUBIDEAK ETA BAKE KULTURA



Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 7. Batzaraldia.  
Martxoaren 7a. Geneva.

UNESCO Etxea Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Munduko Kanpaina ari da garatzen AEDIH elkartarekin batera. Kanpainak aurrera jarraitzen du eta, hala, leku nabarmena du Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordean (idatziko eta ahozko hiru adierazpen osoko bilkuraren aurrean eta hiru ekitaldi paralelo). Kanpaina horrek nazioarteko 120 erakunderen babesa du jada; Nazio Batuen aurrean aholkulari izaera dute erakunde horiek.

Euskal Herrian Giza Eskubideen aldeko hezkuntzarekin dugun konpromisoari eusten diogu. Hala, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza Elkarteen Foroko Zuzendaritza Batzordeko kide gara, eta, horrez gain, ordezkari izendatu gaituzte Bakean eta Giza Eskubideetan Hezteko Euskal Planaren Aholkulari Batzordean. Plan hori hobetzeko aliantzak biltze aldera, Giza Eskubideen aldeko Goi-komisarioaren Bulegoko, UNESCOko eta Europako Kontseiluko maila gorenen aurrean eman dugu ezagutzera plana.

Prestakuntza-proposamen praktikoak hobetu eta landu ditugu Giza Eskubideen ikuspegia Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan txertatu ahal izateko, batez ere lankidetzako eragileak kontuan hartuta: GKEak eta administrazio publikoak.

Ura izateko Giza Eskubideari buruzko liburu bat argitaratu dugu Nazio Batuetako Uraren Hamarkadako Bulegoarekin batera eta argitalpenak eragin nabarmena izan du. Gaztelaniazko eta ingelesezko edizioen ondoren, portugesezko edizioa prestatzen ari da orain. Euskaraz, berriz, laburpen exekutiboak argitaratu zen.

Ura izateko Giza Eskubidea mundu guztiak gozatzeko eta garatzeko eginahal horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugu aurten: gai horretan lanean diharduten Estatuko eta nazioarteko sareetan eragile onartuak gara, eta modu aktiboan parte hartu dugu beste zenbait prozesutan. Adibidez, prozesu horietako baten emaitza izan da ura izateko eta saneamendurako giza eskubideari buruzko aditu independente baten agintaritzaren sortzea; hain zuzen, horra iristeko bidean hartu du parte Unesco Etxeak. 2008an, gainera, Giza Eskubideen aldeko kultura sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria bultzatu dugu (ikus 15. orrialdea) eta Ura izateko Giza Eskubidearen alde egindako lana ezagutarazi dugu Zaragozako Expon (ikus 14. orrialdea).

Informazio gehiago: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**IRAUNKORTASUNA  
ETA INGURUMENA**

Milurteko Garapen Helburuak sustatzeko  
Euskal ekimen berritzailearen aurkezpena.  
Uztailak 28a. Expo Zaragoza, Uraren Auzitegia.

2008an, Milurteko Garapen Helburuen artean 10.a laguntzeko ekimen berritzailea landu dugu, Uraren Euskal Agentziarekin (URA), NBEren Uraren Hamarkadarekin, NBGPekin eta Milurteko Garapen Helburuen (MGH) Kanpainarekin batera. Ekimen horren helburua da 2015erako ur edangarria eta saneamendurako oinarriko zerbitzuak modu iraunkorrean eskura ez dituzten pertsonen ehunekoa erdira murriztea. Ekimen hori Zaragozako Erakusketan aurkeztu genuen maila gorenean (ikus 14 orrialdea) eta NBEk jarduera berritzailetzat jo zuen. Veerle Vanddweerd NBGPren baitan uraren gaian arduradun nagusiak hala iritzi zion ekimenari: «Lankidetzan orain arte ezagutu dudana esperientziarik onenetakoa da eta, alde horretatik, Euskadi eredu da gai horretan antzeko programak garatu beharko lituzketen munduko beste eskualde batzuentzat».

Parte-hartze aktiboa izan dugu Nazio Batuen Uraren Hamarkadak eginiko lanetan, GKE-en Espainiako Koordinadorako Uraren taldeak eginiko lanetan eta koordinadora horren ordezkari gisa EUWIn (Uraren gaian Europako Batasunaren Ekimena) eginiko agerraldietan. Parte-hartze horri esker aukera izan dugu jakintza, harreman eta aukera asko bideratzeko Euskal Herrian eta Espainian uraren gaian lan egiten duten garapenerako lankidetzarako erakundeetara.

UNESCOREkin zuzenean aritu gara elkarlanean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eta bereziki UNESCO Katedra – Biosfera Erreserbak lankidetzako jardunbide egokiak indarrean jartzeko. Hala, jardunbide horiek Latinoamerikan ezartzeko apustua egin dugu (gaur egun Latinoamerikako hiru Biosfera Erreserbak hartzen dute parte egitasmoan).

UNESCO Etxearen eta Iraunkortasunerako UNESCO Katedraren arteko lankidetzarako aberatsaren adierazgarri, biek elkarrekin landu dute Milurteko Ekosistemen Ebaluaziorako proiektua, Bizkaian. Diputazioaren babesari esker, proiektu horrek Nazio Batuen metodologia berritzailea aplikatzen du lurralde horretan.

Beste hainbat arlotan lanean jarraitu dugu, giza garapeneraren ikuspegitik betiere, besteak beste, klima-aldaketaren eta ingurumen-hezkuntzaren arloetan. Nazio Batuen Ingurumen Hezkuntzarako Hamarkadaren aitortza jaso du Euskadin garatutako ereduak; eta UNESCO Etxeak edukia eta trebakuntza jarri ditu eredu horretan.

Informazio gehiago: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

**SENTSIBILIZAZIOA  
ETA HEZKUNTZA**


KOOPERA Zentroa Informazio eta Prestakuntza Zentro bat da, herritar guztientzat zabalik dago eta Nazio Batuen Sistemari eta Nazioarteko Lankidetzan espezializatuta dago. Zentroa UNESCO Etxeak sustatzen du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Euskadiko Kutzarekin elkarlanean. Aurtengo prestakuntza-eskaintza 180 ordukoa izan da, 5 ikastarotan banatuta. Guztira, 120 pertsonak jaso dute formazioa.

2008ko IKASTAROK: 'Garapenerako lankidetzaren programazioan giza eskubideen ikuspegia sartzeari buruzko lantegia', 'Giza eskubideak babesteko baliabideei buruzko ikastaroa', 'Lankidetzako zuzeneko formakuntza', 'Garapenerako lankidetzarako proiektuak egitea eta parte hartzeko teknikak', 'Formazioa Nazio Batuetan eta Milurteko Garapen Helburuak'.

Eusko Jaurlaritzaren NBE Beken Programari esker, bederatzi pertsona hasi dira lanean UNESCOren bulegoetan, Asia, Afrika eta Amerikako zazpi herrialdeetan, eta beste sei pertsonak berriro dute beka bigarren urtez.

Informazio- eta arreta-zerbitzuak 1.500etik gora kontsulta jaso ditu Nazio Batuen sistemari eta garapenerako lankidetzari buruz. Koopera zentroaren helburu nagusia izan da etorkizuneko profesionalak gidatzea gai horietan.

KOOPERA Zentroak Ingurumenaren Biografiak erakusketa ere hartu zuen. Andrew Rickard-ek eta UNESCO Etxeko iraunkortasun arloko prestatu zuten erakusketa. Munduko hainbat herrialdeetako pertsonen



Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketa – EFIM 2008  
Ormaiztegiako biaduktua (Gipuzkoa). Amaia Iturrioz. Urrebu-Zumarraga Ikastola.

testigantzak jasotzen ziren erakusketan; beren inguruan ingurumenak zer-nolako aldaketak izan dituen azaltzen zuten lekukotza horiek.

Aurreko urteetako ohiturari jarraiki, parte hartu dugu Pobrezia Zero Munduko Kanpainako hainbat ekitalditan. Euskadiko GGKE-en Koordinadorak antolatutakoak ziren ekitaldi horiek.

EAEko hainbat GKE, elkarte eta goi-mailako ikasketa-zentrokekin izan gara harremanetan, eta horri esker, 100etik gora pertsonak izan dute aukera, zuzen-zuzenean, gure zerbitzuak ezagutzeko.

UNESCOn Eskola Elkartuen Sarea koordinatzen dugu Euskal Herrian. Sare horren helburua da kalitateko hezkuntza lortzea UNESCOn printzipioetan eta idealetan oinarrituta. Gaur egun, zortzi zentrok hartzen dute parte sare horretan.

Bi euskal zentrok Europako Kontseiluaren Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketan (EFIM) parte hartzeko bitartekoak egin ditugu. Lau euskal ikaslek saria jaso zuten beren

inguruko kultura-ondareari buruzko argazkiengatik eta, horri esker, gazteen nazioarteko topaketan parte hartu ahal izan zuten. Estrasburgon izan zen topaketa hori eta lau gazteek aukera izan zuten Europako Kontseilua bisitatzeko eta ezagutzeko.

Dokumentazio Zentroak Nazio Batuen Sistemako organismo eta agentzien gainean espezializatutako dokumentu-funts zabala jartzen du eskueran interesa duen ororentzat.

Dokumentazio aldetik, funts zabala kudeatu dugu: 3.201 titulutik gora, aldian behingo 80 argitalpen, hainbat biltzar eta munduko gailurri buruzko gaikako txostenak, ikus-entzunezkoak, material didaktikoa eta Nazio Batuen Sistemari buruzko dokumentazioa.

Zerbitzuetan, besteak beste, mailegua, datu-base bibliografikoa on line kontsultatzeko aukera, eta UNESCOko datu-basea nahiz sumarioen eta berrikuntzen buletinak kontsultatzeko aukera daude.

Informazio gehiago: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

## WEBGUNEAK

[www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)

280.638 sarrera erregistratu dira; hau da, egunero 776 bisita batez beste. 1.036.496 web-orri ikusi dira. 158 berri argitaratu dira eta 11 buletina bidali dira.

2008an web gunean hobekuntza garrantzitsuak martxan jarri ditugu: 'berriak' atalaren diseinu berria, edukien eguneratze-sistema (RSS), menu nagusiaren aldaketa, lan-arloen berrantolaketa eta zuzendariaren Bloga.

## 2008KO ARGITALPENAK



**El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad**  
**Belen Uranga, Mainer Maraña (arg.)**

Gaztelaniaz  
Los libros de la catarata argitaletxeak argitaratua  
Erosteke: [www.catarata.org](http://www.catarata.org) edo liburu-dendetan (15 €)



**Europako Kontseilua eta giza eskubideen babesa**

**Europako Kontseilua**  
Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Duintasuna eta justizia denontzat. 60. urteurrenerako argitalpen berezia**  
**Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saila**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri:  
[www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org) eta [www.ohchr.org](http://www.ohchr.org)



**Euskal Autonomia Erkidegoko ur-baliabideen kudeaketa ikergai duen kasu-azterketaren laburpen txostena**

**UNESCO Etxea, URA**  
Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**El Derecho Humano al agua. Situación y retos de futuro**  
**Mikel Mancisidor (zuz.); Natalia Uribe (koor.)**

Gaztelaniaz  
Icaria argitaletxeak argitaratua  
Erosteke: [www.icariaeditorial.com](http://www.icariaeditorial.com) edo liburu-dendetan (19 €)



**The Human Right to water**  
**Mikel Mancisidor (zuz.); Natalia Uribe (koor.)**

Ingelese  
Icaria argitaletxeak argitaratua  
Erosteke: [www.icariaeditorial.com](http://www.icariaeditorial.com) edo liburu-dendetan (19 €)



**Ingurumen Biografiak (CD-rom)**  
**Andrew Rickard, UNESCO Etxea**

Euskaraz, Gaztelaniaz eta ingelesez  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**Oinarritzko gida klima aldaketari eta garapenerako lankidetzari buruz**

**Espainiako GGKE-en Koordinakundeko Klima-aldaketari eta pobrezia-aren aurkako borrokari buruzko lantaldea**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**Colombia en su laberinto. Una mirada al conflicto**

**Felipe Gómez Isa (zuz.)**  
Gaztelaniaz  
Los libros de la catarata argitaletxeak argitaratua. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuarekin lankidetzan.  
Erosteke: [www.catarata.org](http://www.catarata.org) edo liburu-dendetan (17 €)



**Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak.**  
**Xabier Aierdi, Belen Uranga (arg.)**

Euskaraz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org) eta [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)



**Hizkuntzak eta immigrazioa**  
**Belen Uranga, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrtu, Andoni Barreña, Ane Ortega**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org) eta [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)



**Uraren ametsa (DVD)**  
**Bausan Films (prod); UNESCO-WWAP eta Expo Zaragoza 2008**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org) eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)



**Hitz egin dezagun klimari buruz**  
**UNESCO Etxea (koor.)**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**Ura: eskubidea, gizarte desorekatu honetan. Giza Garapenera buruzko 2006ko txostena, gazteek laburtuta**

**UNDP, Peace Child Internazional**  
Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org) eta [www.undp.org](http://www.undp.org)



**Garapen iraunkorari buruzko Urdaibaiko jardinaldiak 1994-2006. Jardunaldien argitalpenen bilduma (I. etatik XII. jardunaldietara) (CD-rom)**  
**UNESCO Etxea**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**ABC Giza Eskubideen irakaskuntza. Lehen eta bigarren hezkuntzarako ikastetxeentzako jarduerak praktikoak**

**Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (OHCHR)**

Euskaraz eta Gaztelaniaz  
Eskuragarri: [www.unescoeh.org](http://www.unescoeh.org)



**Movimiento cinturón verde**  
**Wangaari Maathai**

Gaztelaniaz  
Los libros de la catarata argitaletxeak argitaratua  
Erosteke: [www.catarata.org](http://www.catarata.org) edo liburu-dendetan (15€)



**La epidemia del SIDA y la globalización de los riesgos**  
**Peter Piot**

Gaztelaniaz  
Los libros de la catarata argitaletxeak argitaratua  
Erosteke: [www.catarata.org](http://www.catarata.org) edo liburu-dendetan (15€)

## EKITALDI GARRANTZITSUENAK ETA AURKEZPEN PUBLIKOAK



Erakusketa: Ingurumenaren biografiak. Andrew Rickard, egilea, Josu Sanz eta Miren Onaindiarekin.



Jardunaldia: 2008ko Uraren munduko eguna. Albert Solé, 'Uraren Ametsa' filmearen zuzendariaren parte-hartzeaz.



Kongresua: Hizkuntzak eta immigrazioa. Amarauna talde teknikoak, Ikuspegi-ko Xabier Aierdi eta hizlariak: Marijose Azurmendi, Jurjo Torres, Michel Nicolet, Guus Extra eta Carne Junyent.



Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 60. urtemugaren ospakizuna. Carlos Villán eta Manuel Lezertuarekin.

2008an, hainbat instituziorekin elkarlanean, ekitaldi publiko asko antolatu ditugu Euskadiko Autonomia Elkartearen. Ekitaldi horietan, aztertu diren gai guztietako aditu ezagun asko izan dira.

### Erakusketa: 'Ingurumenaren biografiak'

Urtarrilaren 16tik otsailaren 22ra. EHU eta Kooperera zentroa. Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedraren eta egilea, Andrew Rickard-en, lankidetzaz.

### Mahai-ingurua: 'UNESCO Katedrak Biosfera Erreserben aurrean: zientzia eta ingurumen kudeaketaren arteko zubiak eraikiz'

Otsailaren 7a. Biosfera Erreserben III. Nazioarteko Kongresuan. Madril. Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedraren lankidetzaz.

### Jardunaldiak: 'Giza Eskubideen nazioarteko sustapena eta babesa'

Otsailaren 20tik martxoaren 17ra  
Mara Bustelo (UNHCHR) eta Linda Tiniorekin (UNESCO), besteak beste. Ercilla Hotela. Bilbao.

### Aurkezpena: 'Amerikako hizkuntza aniztasuna Mexikotik Hego Konoraino'

Otsailaren 26a. EHU, Zubiria Etxea, Sarriko. Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren lankidetzaz.

### Mahai-ingurua: '2007/2008ko Giza garapenari buruzko txostena'

Martxoaren 11a. Kultur etxea. Arrasate.

### Jardunaldia: '2008ko Uraren munduko eguna'

Martxoaren 13a. Bilboko Itsas Museoa. URAREN lankidetzaz.

### Aurkezpena: 'ABC: Giza Eskubideen irakaskuntza'

Martxoaren 17a. Euskadiko Kutxako areto nagusia. Bilbao.

### Aurkezpena: 'La epidemia del SIDA y la globalización de los riesgos'

Apirilaren 18a. Bilboko Udala. Bideokonferentzia Peter Piot-ekin, ONUSIDAKO Zuzendari Eragilea.

### Kongresua: 'Hizkuntzak eta immigrazioa'

Maiatzaren 23 Euskalduna jauregia. Bilbao. Ikuspegi-ren lankidetzaz.

### Erakusketa: 'Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketa'

Maiatzaren 27tik- ekainaren 8ra. Yhon jauregia. Bilbao. Artxandape Ikastolaren lankidetzaz.

### Mintegi-solasaldia: 'Hizkuntza Aniztasuna eta Kultura Aniztasunaren Kudeaketa immigrazio eta nazio gutxiengoaren inguruneetan'

Ekainaren 13a. Will Kymlickarekin. Giza Eskubideen Nazioarteko III Kongresua. Euskalduna jauregia. Bilbao. Ikuspegi-ren lankidetzaz.

### Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 60. urtemugaren ospakizuna

Ekainaren 25a. Euskadiko Kutxako areto nagusia. Bilbao. Carlos Villán Durán eta Manuel Lezertuarekin. Bideokonferentzia Marcio Barbosa, Peter Piot eta Hans Blix-rekin, besteak beste.

**Kongresua: 'Hizkuntza gutxituen erronkak globalizazio aroan'**

Batzorde zientifikoa. Urriaren 9tik-10era. Euskalduna jauregia. Bilbao. EUDEL-ek antolatuta.

**Prestakuntza–Ibilbidea: 'Nazio Batuak eta giza garapena'**

2008ko urritik abendura.

'Kultur Aisia Unibertsitatean 2008-2009' prestakuntza-programaren barnean Deustuko Unibertsitateko Aisiatzko Ikaskuntzen Institutuak antolatuta. Basauri.

**Jardunaldia: 'Ura eta lankidetzaz'**

Urriaren 30a. Koopera zentroa. Bilbao.

**Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean UNESCO Etxeko aurkeztea: Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Munduko Kanpaina.**

Urriaren 30a. Gasteiz.

**Aurkezpena: 'El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad'**

Abenduaren 18a. Euskararen Etxea. Bilbao.

**Era berean, Nazio Batuen sistemako ekitaldietan, aktiboki parte hartu, eta jarduerak antolatu ditugu:****Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 7. Batzarraldia**

Oral statement eta ekitaldi paraleloa AEDIDH-rekin: 'Muturreko Pobrezia eta Bakerako Giza Eskubidea'.

Martxoaren 7a. Geneva.

**Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 8. Batzarraldia**

Written Statement eta ekitaldi paraleloa AEDIDH-rekin: 'Bakea eta giza eskubideetan hezkuntza eskubidea'.

Maiatzaren 28a. Geneva.

**Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 9. Batzarraldia**

Oral Statement eta ekitaldi paraleloa: 'Herri indigenak eta bakerako giza eskubidea'.

Irailaren 1a. Geneva.

**61. GKE / DPI Konferentzia.**

Paris. Irailaren 3tik 5era. AEDIDH-ren lankidetzaz.

Mahai-ingurua: 'Sarrera, Bakearen Giza Eskubidera'. Caucus: 'Bakea eta Giza Eskubideak'.

**Ura izateko giza eskubidearen aditu independentearen aginduaren aurkezpena**

Azaroaren 13a.

OHCHR eta Alemaniako Kanpo Arazoetako Ministerioa. Berlin.

**Bestalde, gure lan-taldeak beste erakundeak, GKE-ek, eta unibertsitateak antolatutako hitzaldi eta ikastaro ezberdinak eman ditu.**

Ikastaroa: Ura izateko giza eskubidea. Natalia Uribe emandakoa.



Jardunaldia: 'Ura eta lankidetzaz'



Eusko Legebiltzarrearen aurreko Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Munduko Kanpainaren aurkezpena. Mikel Mancisidor, Carlos Villán eta Cristina Linaje.



Aurkezpena: 'El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad' Justo Bolekia Boleká eta Maider Maraña.

## UNESCO ETXEA ZARAGOZAKO EXPO 2008AN



Erakusketa, eta zehazki Nazio Batuen Pabiloia, aukera zitekeen lekurik egokiena izan zen 'El Derecho Humano al Agua' (Ura izateko Giza Eskubidea) liburuaren gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak aurkezteko. 'Ura, bizitzaiturri' Hamarkadarekin elkarlanean argitaratu zen liburu hori.

Uraren gaian gure lana aurkeztu genuen nazioartean horrenbestez eta harrera bikaina eta oihartzun zabala izan genuen; horrek aukera eman zigun ikasten jarraitzeko eta beste kide batzuk geuregana biltzeko.

**Aurkezpena: EAEko uraren kudeaketari buruzko ikerketa. 'Ura, etengabe aldatzen ari den munduan'. Munduko Ur Baliabideen Garapenari buruzko Txostenaren III. edizioari eginiko ekarpena.**

Uztailak 25. Nazio Batuen Pabiloia.

**Mahai-ingurua: 'Ur eta Saneamendu gaietan Milurtekoko Garapen Helburuak finantzatzeko eta babesteko alternatiba berritzaileak'**

Uztailak 28. Uraren Auzitegia.

**NBE eguna Expon: 'Ura izateko Giza Eskubidea. Gaur egungo egoera eta etorkizunerako erronkak' hitzaldiaren aurkezpena.**

Irailak 1. Nazio Batuen Pabiloia.

**Mahai-ingurua: 'Ura izateko Giza Eskubidea'**

Irailak 11. El faro Pabiloia.

Ekitaldi propio horiez gain, UNESCO Etxeak gonbidatu moduan parte hartu zuen beste bi ekitalditan:

**Mahai-ingurua: 'Ura eta garapen iraunkorra'**

Abuztuak 5. Brasileko Hezkuntza Ministerioak antolatua.

**Jardunaldia: 'Elkartasunezko finantziario-mekanismoak'**

Irailak 9. Uraren aldeko Aliantzak eta psEAUk antolatua.




Ekainaren 14tik irailaren 14ra 'Ura eta Garapen Iraunkorra' Nazioarteko Erakusketa egin zen Zaragozan. Bost milioi eta erdi bisitari, ekitaldi, aditu, erakunde eta sare ugari izan ziren erakusketan. UNESCO Etxeak, egokiera bikaina aprobetxatuz, bere lana aurkeztu zuen eta esperientziak eta proiektuak partekatu zituen han bildutakoekin.

Erakusketan, Herritarren Ekimenen Pabiloi bat izan zen, El Faro zeritzana. Gizarteko 350etik gora elkarte eta erakunderen ideiak eta jarduerak koordinatu ziren El Faro pabiloi horretan. Uraren Auzitegia izan zen gogoetarako gune ofizialena, eta, aldi berean, oso eraikitzailea eta interesgarria. UNESCO Etxeak bi gune horietan hartu zuen parte modu aktiboan; besteak beste, zenbait ekitaldi propio antolatu zituen Milurtekoko Helburuetarako finantza-berrikuntzei buruz eta Ura izateko Giza Eskubidean betetzeko dauden erronkei buruz. Tokiko eta nazioarteko beste zenbait erakundek antolatutako ekitaldietan modu aktiboan parte hartzeko gonbidapena jaso ere jaso genuen, eta, bukatzeko, NBEren pabiloian gure iritziak aurkezteko gonbidatu gintuen NBEk berak; aukera hori izan zuen munduko GKE bakarra izan ginen, ohore handia guretzat. NBEren egun ofizialean izan zen ekitaldia, Ban Ki-Moon idazkari nagusiaren hitzaldia bukatu ondoren. Hori guztia koordinazio estuan 'Ura, bizitzaiturri' 2005-2015 Ekintzarako Nazioarteko Hamarkadarekin eta UNESCOren Ur Baliabideak Ebaluatzeko Munduko Programarekin (WWAP).



## GIZA ESKUBIDEEN KULTURA SUSTATZEKO UNESCO/BILBAO SARIA



Azken urteotan UNESCO Etxearen lorpenik ederrenetako bat izan da aspaldiko Giza Eskubideen UNESCO Sari entzutetsua Giza Eskubideen Kultura sustatzeko UNESCO/Bilbao Sari zaharberritu eta kementsu bihurtzea. Gogora dezagun, besteak bestek, Václav Havel entzutetsuak jaso zuela 1978an garai bateko UNESCO sari hura, baita ospe handiko beste hainbat pertsonak ere.

Saria bi urtetik behin emango zaio Giza Eskubideen kulturaren alde egindako ekarpenagatik nazioartean nabarmendu den pertsona edo erakunderen bati. Epaimahaia UNESCOko zuzendari nagusiak izendatua da eta giza eskubideak sustatzeko eta babesteko lan horretan entzute handikoak diren bost pertsonak osatzen dute. Munduko hainbat lekutakoak dira bost epaimahaikide horiek.

Izen handiko epaimahai hori azaroan bildu zen Bilbon, eta saria Stéphane Hessel-i ematea erabaki zuen. ATD Laugarren Mundua nazioarteko mugimenduak jaso zuen ohorezko aipamena.

Stéphane Hessel poeta, intelektuala, diplomatikoa, giza garapenaren aldeko langilea (NBGPko administratzailearen ondokoa izatera iritsi zen) eta Giza Eskubideen ekintzailea da, zentzurik zabalenean, duela 60 urtetik hona. 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren egileetako bat izan zen, gainera; bera da bizirik geratzen zaigun bakarra.

Stéphane Hessel gizon agurgarria da, bizitza eta ibilbide oparokoa; UNESCO Etxeko kide izateak ematen duen pribilegioetako bat izan da bera ezagutzea: 92 urterekin baikortasun, konpromiso eta kemenaren eredu bizi-bizia da; oraindik ere Giza Eskubideen alde lanean jarraitzen duen ekintzailearen adibidea. Hesselek harri eta zur utzi gintuen agure jakintsua eta



kartsua izanik ere, egunero ikasteko eta harritzeko ahalmena duelako.

Giza Eskubideen Nazioarteko eguna izan zen 2008ko abenduaren 10ean, Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrenean. Parisen, UNESCOren egoitzan izan zen ekitaldi handia: Stéphane Hessel-ek UNESCOko zuzendari nagusi Koïchiro Matsuuraren eskutik eta Bilboko alkate Iñaki Azkunaren eskutik jaso zuen Giza Eskubideen aldeko kultura sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria, bizitza osoan giza eskubideen, justiziaren eta duintasunaren aldeko kultura sustatzeko konpromisoagatik, eta horren alde egindako lanagatik, eta 'Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartzeko parte-hartze pertsonalagatik'.

Ekitaldia esker oneko diskurtso hunkigarri batekin amaitu zen; ondoren, areto guztiak zutik txalo zaparrada beroa eskaini zion sarituarri. Amaitzeko, berriz, itxiera dotorea: Joaquín Achúcarrok, UNESCOren Bakearen aldeko artistak, UNESCO Etxeko Ohorezko Bazkideak eta bilbotar unibertsalak, Albénizen pieza batzuk eta Chopinen bals batzuk jo zituen pianoarekin.

Hainbat mugarri behar izan dira une horretara iristeko:

**UNESCOren eta Bilboko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea Giza Eskubideen aldeko UNESCO Sariak jarrai zezan Bilboko hiriarri loturiko beste etapa batean.**

Maiatzak 5. UNESCOren egoitza. Paris

**Epaimahaiaren bilera eta Sariaren epaitza.**

Azaroak 3-5. Bilbo

**Mahai-ingurua: 'Giza duintasuna eta guztienezako justizia. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala 60 urteren buruan: lorpenak eta erronkak'.**

Azaroak 4. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

**Saria emateko zeremonia.**

Abenduak 10. UNESCOren egoitza. Paris.

UNESCO Etxeak jarduera bakoitzari buruzko informazio argia eta zorroztza ematen dio gizarteari. Gure kontuak Gassó Auditores, SL-k ikuskatzen ditu urtero. Bazkide edo erakunde laguntzaileen batek gure finantza egoerari buruzko datu gehiago jakin nahi izango balitu, kontuen ikuskaritzaren txostenak eskuratzeko aukera izango du.

UNESCO Etxeak aurten Bakearen Kultura eta Giza Eskubideen alde lan egiten lagundu dioten enpresei bere esker ona zabaldu nahi die:



**ELCORREO**

**Gipuzkoa**

**GESTION 2-17**

**IRIZAR**

**Obra Social**  
Fundación "la Caixa"

**ULMA**

**VIAJES IBERIA**  
CAMPO BERRITENA

### Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

2008ko Sarrerak, Guztira		1.177.345,39
<b>Ekarpen pribatuak</b>		<b>135.064,92</b> <b>%12</b>
Bazkideak	8.054,00	%1
Erakunde pribatuak	127.010,92	%11
<b>Ekarpen publikoak</b>		<b>1.042.280,47</b> <b>%88</b>
Eusko Jaurlaritzza	919.041,45	%78
Bizkaiko Foru Aldundia	66.000,00	%5
Udalak	29.000,00	%2
UNESCO	12.650,00	%1,5
Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa	6.000,00	%0,5
Beste sarrera batzuk	9.589,02	%1

#### \*Eusko Jaurlaritzza:

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila %43; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila %23; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saila %11; Kultura saila %10; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia %9; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila %4.

### Gastua Programaz Programa

2008ko Gastuak, Guztira		1.166.754,10
Sentsibilizazioa eta hezkuntza	160.593,48	%14
UNESCO Bekak	168.830,75	%14
Giza Eskubide proiektuak	193.326,32	%17
Ingurumen proiektuak	252.856,74	%22
Hizkuntzak eta kulturak proiektuak	155.215,21	%13
Nazioarteko Harremanen proiektuak	87.348,77	%7
Kudeaketa orokorra	148.582,83	%13

### 2008ko egoera-balantzea

Aktiboa	2008
A) aktibo ez zirkulatzailea	7.431,11
II. Ibilgetu materialak	7.431,11
B) aktibo zirkulatzailea	941.743,91
<b>Aktiboa Guztia</b>	<b>949.175,02</b>
Pasiboa	2008
A) Ondare garbia	134.306,69
A-1) Funts propioak	134.306,69
C) Pasibo zirkulatzailea	814.968,33
<b>Ondare garbia eta pasiboa guztia</b>	<b>949.175,02</b>

### 2008ko Auditoriaren Txostena

